8

# Seinaleak

## Señalética

Abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak –1999ko urriaren 26an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta– arautu zuen Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasuna. Dekretuak aipatzen duen eskuliburuak hiru kapitulu jasotzen ditu:

1. kapitulua. Arau orokorrak
2. kapitulua. Beste marka batzuekin batera
3. kapitulua. Berariazko beste marka batzuk

Kapitulu hau, berriz, dekretu horren ondorengo garapena da; hain zuzen ere, Lehendakaritzako idazkariaren ebazpen bidez onartua, hala ezartzen baitu delako dekretuko azken xedapenetako lehenengoak.

La Identidad Corporativa del Gobierno Vasco está regulada por el Decreto 318/1999, de 31 de Agosto, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 26 de Octubre de 1999, y que comprende:

Capítulo 1. Normas Universales
Capítulo 2. Convivencia con Otras Marcas
Capítulo 3. Otras Marcas Específicas

El Presente capítulo es un desarrollo normativo posterior adoptado por Resolución del Secretario de la Presidencia, en virtud de la Disposición Final Primera del citado Decreto.

# Aurkibidea

# Índice

## 8. SEINALEAK

## 8. SEÑALÉTICA


| Aurkibidea | Orria | Índice |
|---|---|---|
| **8.1. Arau orokorrak** | 8-2 / 99 | **8.1. Normas generales** |
| 8.1.1. Marka | 8-2 / 99 | 8.1.1. Marca |
| 8.1.2. Hizki-mota | 8-4 / 99 | 8.1.2. Tipografía |
| 8.1.3. Hizkien neurriak | 8-6 / 99 | 8.1.3. Medidas para la tipografía |
| 8.1.4. Errotuluak eratzeko modua | 8-8 / 99 | 8.1.4. Composición de rótulos |
| 8.1.5. Geziak | 8-10 / 99 | 8.1.5. Flechas |
| 8.1.6. Piktogramak | 8-12 / 99 | 8.1.6. Pictogramas |
| 8.1.7. Hizkuntzaren trataera | 8-14 / 99 | 8.1.7. Tratamiento idiomático |
| **8.2. Euskarriak** | 8-16 / 99 | **8.2. Soportes** |
| 8.2.1. Ezaugarriak | 8-16 / 99 | 8.2.1. Características |
| 8.2.2. Euskarrien aukerak | 8-18 / 99 | 8.2.2. Gama de soportes |
| 8.2.3. Tinkatzeko sistemak | 8-20 / 99 | 8.2.3. Sistemas de fijación |
| 8.2.4. Seinaleen kokalekuak | 8-22 / 99 | 8.2.4. Emplazamiento de la señalización |
| **8.3. Administrazio-lanetarako eraikinak** | 8-26 / 99 | **8.3. Edificios administrativos** |
| 8.3.1. Urbanizazioa | 8-26 / 99 | 8.3.1. Urbanización |
| 8.3.2. Administrazio-lanetarako eraikinetako kanpo-seinaleak | 8-28 / 99 | 8.3.2. Exterior de edificios administrativos |
| 8.3.3. Eraikinen aurkibidea | 8-30 / 99 | 8.3.3. Directorio de edificios |
| 8.3.4. Solairuko aurkibidea | 8-32 / 99 | 8.3.4. Directorio de plantas |
| 8.3.5. Administrazio-atalen aurkibideak | 8-34 / 99 | 8.3.5. Subdirectorios |
| 8.3.6. Bigarren mailako errotuluak | 8-36 / 99 | 8.3.6. Rótulos secundarios |
| 8.3.7. Lekuak ezagutarazteko seinale zehatzak | 8-38 / 99 | 8.3.7. Señalización puntual de identificación |
| 8.3.8. Erakusmahaiko errotuluak | 8-40 / 99 | 8.3.8. Rótulos de mostrador |
| 8.3.9. Txanda itxaroteko errotuluak | 8-40/ 99 | 8.3.9. Rótulos para indicación de espera |
| 8.3.10. Errotulu bereziak | 8-42 / 99 | 8.3.10. Rótulos especiales |
| 8.3.11. Larrialdietako irteerak adierazteko errotuluak | 8-44 / 99 | 8.3.11. Rótulos de salida de emergencia |
| **8.4. Administrazio-lanetarako ez diren eraikinak** | 8-46 / 99 | **8.4. Edificios no administrativos** |
| 8.4.1. Instalazioak | 8-46 / 99 | 8.4.1. Instalaciones |
| 8.4.2. Aldi baterako seinaleak | 8-48 / 99 | 8.4.2. Señalizaciones temporales |
| **8.5. Txartelak eta jantziak** | 8-50 / 99 | **8.5. Acreditaciones y vestuario** |
| 8.5.1. Egoitzetara sartzea duten pertsonak | 8-50 / 99 | 8.5.1. Personal con acceso a sedes |
| 8.5.2. Bisitariak | 8-52 / 99 | 8.5.2. Visitas |
| 8.5.3. Biltzarrak, jardunaldiak eta abar | 8-52 / 99 | 8.5.3. Congresos, Jornadas, etc. |
| 8.5.4. Jantziak | 8-54 / 99 | 8.5.4. Vestuario |

# 8.1 Arau orokorrak

## 8.1.1 Marka

Markaren edozein bertsio erabiliko da: “etzana”, “erdikoa” edo “albokoa”, bai koloreetan, bai kolore bakarrean, baina beti euskarri bakoitzak duen erabilera zehatzari hertsiki loturik.

Marka honakoetan baino ez da erabiliko:

- **Eraikinetako aurrealdeko errotuluetan**
- **Norbanakoak ezagutaraztekoetan**

Barrualdeko seinaleetan ez da sekula erabiliko.

# 8.1 Normas generales

## 8.1.1 Marca

Se utilizará la Marca en cualquiera de sus versiones "Horizontal", "Centrada" o "Lateral" en color o monocolor, ateniéndose al uso concreto que para cada soporte se especifica.

La Marca sólo se utilizará en:

- **Rótulos de fachada**
- **Identificación de Personas**

Nunca se utilizará en señalética interior.

Marka "etzana",
kolore bakarrekoa

Marca "Horizontal"
monocolor

"Erdiko" marka,
kolore bakarrekoa

Marca "Centrada"
monocolor

"Alboko" marka,
kolore bakarrekoa

Marca "Lateral"
monocolor

## 8.1.2 Hizki-mota

Seinaleak lantzen eta ikertzen dituzten tratatu guztiek diotenez, Helvetica hizki-mota da errotuluetarako egokiena. Hizki-mota horrek, bai larriz, bai xehez (45 Helvetica Neue 3 Light edo 65 Helvetica Neue 3 Medium) trazadura errazak eta proportzio egokiak ditu, eta kanpotik ez du inolako ezaugarri nahasgarririk. Horri guzti horri esker, hobeto eta errazago irakurtzen da baldintza guztietan eta edonondik (hurbiletik, urrunagotik eta urrunetik).

Gure kasuan, Helveticak eskaintzen dituen aukera guztiak erabiltzen dira erakundearen hizki-motan. Hobeto irakurri ahal izateko, hizki larriz eta xehez idatziko dira testuak, **EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**, izena izan ezik, hori beti hizki larriz agertuko baita.

## 8.1.2 Tipografía

Todos los tratados y estudios sobre señalética coinciden en señalar a la tipografía Helvética, rotulada en mayúsculas y minúsculas (45 Helvetica Neue 3 Light o 65 Helvetica Neue 3 Medium), por lo sencillo de sus trazos, proporciones y  exención de rasgos superfluos, como la que consigue una mejor y más fácil legibilidad en todas las condiciones de visión, a corta, mediana o larga distancia.

En nuestro caso, la Tipografía Corporativa, es la Helvética en sus diferentes versiones.
Para una percepción óptima la escritura combinará letras mayúsculas y minúsculas.
Excepción a esta norma es la denominación **EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO**, que irá siempre en la configuración definida para el logotipo.

65 Helvetica Neue 3 Medium - zuzena / recta    ADOBE ATM ( MAC-PC )

abcdefghijklmnñop
qrstuvwxyz
1234567890
ABCDEFGHIJKLMN
ÑOPQRSTUVWXYZ

45 Helvetica Neue 3 Light - zuzena / recta    ADOBE ATM ( MAC-PC )

abcdefghijklmnñop
qrstuvwxyz
1234567890
ABCDEFGHIJKLMN
ÑOPQRSTUVWXYZ

## 8.1.3 Hizkien neurriak

**Kanpoaldeko errotuluen** neurriak ezin dira zehaztu, eraikinen aurrealdearen, urruntasunaren, goieraren eta horrelakoen araberakoak izango dira eta.

**Urbanizazioetako errotuluetan** tamaina handiko hizkiak erabiliko dira, zeren 5 metro baino gehiagotik eta higituz irakurtzen baitira.

**Barrualdeko errotuluetan**, gehienez ere bost tamaina erabiliko dira hizki-moten goieretarako. Horrela, administrazio-mailetan agertzen diren informazio-beharrizan guztiak konponduta geratuko dira, eta behar bezala ikusi eta irakurri ahal izango dira.

"E" hizki larriaren goierak zehaztuko du gainerako hizkiena ere.

## 8.1.3 Medidas para la tipografía

**En rotulación exterior,** no es posible determinar tamaños para los rótulos, por estar éstos sujetos a las dimensiones de las fachadas, distancia, altura, etc..

**En la rotulación de urbanización,** vamos a contemplar el uso de letras de tamaño grande, habida cuenta que su lectura será a media distancia (más de 5 mts.) y en movimiento.

**En rotulación interior,** como máximo vamos a contemplar la posibilidad de utilizar cinco tamaños en la altura de la tipografía. Con ello se podrán resolver todas las necesidades informativas que se planteen en los diferentes niveles jerárquicos, satisfaciendo las necesidades de visibilidad y lectura a todas las distancias.

La determinación de la altura viene dada por la altura de la letra "E" mayúscula.

| **TAMAINA**<br>TAMAÑO | **IKUSGARRITASUNA**<br>VISION | |
|---|---|---|
| ***"E" hizki larriaren tamaina***<br>*Tamaño de la letra "E" mayúscula* | ***Ikusteko distantzia onena***<br>*Distancia óptima de visión* | ***Ikusteko gehienezko distantzia***<br>*Distancia máxima de visión* |
| 10 mm = Cuerpo 40 | 0,9 - 1,5 m | 3 m |
| 16 mm = Cuerpo 63 | 1,4 - 3 m | 5 m |
| 25 mm = Cuerpo 99,5 | 2,5 - 3,5 m | 8 m |
| 50 mm = Cuerpo 198 | 5 m | 13 m |
| 100 mm = Cuerpo 397 | 10 m | 25 m |

Taula hau egiteko orduan, kontuan hartu da hondo grisaren gainean (Pantone 407) idatzitako hizki beltzen irakurgarritasuna.

Esta tabla está basada en la lectura de letras negras sobre fondo gris Pantone 407.




**C = Hizkiak fotokonposatzeko tamaina-eredua**
C = Cuerpo de fotocomposición tipográfica

## 8.1.4 Errotuluak eratzeko modua

Esaldiaren lehen hizkia larriz idatziko da eta gainerako guztiak xehez. Ez da inoiz textu osoa hizki larriz jarriko.

- Sistemaren berezko metodoari jarraiki egingo da, 8-31 / 99tik 8-45 / 99ra bitarteko orrialdeetan azaltzen diren tamaina-ereduen arabera.
- Hizkiak konposatzeko hartu den tamaina--ereduari egokituko zaizkio **hizki-tarteak**.
- Errotulu konposatuetan, baldin eta euskara goian eta gaztelania behean jartzen bada, honako arau hauei jarraituko zaie:
  - Sailen edo zerbitzuen euskarazko eta gaztelaniazko izenak konposatzeko hartu den tamaina-eredu bera erabiliko da lerro--tarteak osatzeko. Adibidez: 40ko tamaina--ereduari 40ko lerro-tartea dagokio.
  - Lerro bat baino gehiago betetzen duten zerbitzuen izenak konposatzeko hartu den tamaina-eredu bera erabiliko da lerro--tarteak osatzeko; adibidez, 40ko tamaina--ereduari 40ko lerro-tartea dagokio. Kasu horretan, euskarazko azken lerroaren eta gaztelaniazko lehenaren arteko lerro-tartea berezko lerro-tartea baino % 20 handiagoa izango da; adibidez, 40ko tamaina-ereduari 48ko lerro-tartea dagokio.

## 8.1.4 Composición de rótulos

Siempre se compondrá combinando la mayúscula para iniciales y minúscula para el resto del texto. Nunca todo en mayúscula.

- Se hará por el método propio del sistema, a los cuerpos que se indican en los modelos de las páginas 8-31 / 99 a 8-45 / 99.
- El **interletrado** será el propio del cuerpo en que se esté componiendo.
- En los rótulos compuestos, euskera arriba, castellano abajo, se seguirán estas normas:
  - El interlineado entre el euskera y el castellano de nombres de Departamentos o Servicios, será el propio del cuerpo en que se esté componiendo, (ejemplo: a un cuerpo 40, le corresponde un interlineado de 40).
  - El interlineado entre nombres de Servicios que ocupen más de una línea, será el propio del cuerpo en que se esté componiendo, (ejemplo: a un cuerpo 40, le corresponde un interlineado de 40). En este caso el interlineado entre la última línea del euskera y la primera del castellano será de un 20% más que el interlineado propio, (ejemplo: a un cuerpo 40, le corresponde un interlineado de 48).

- Sail edo zerbitzuen izenen arteko bereiztartea, bestalde, erabiltzen den plakari dagokiona izango da.
- Plaka berean agertzen badira, testuaren tamaina-ereduaren % 40 handiagoa izango da lerro-tartea.

- Errotulu konposatuetan, baldin eta euskara ezkerrean eta gaztelania eskuinean jartzen bada, honako arau hauei jarraituko zaie:
  - Plaka ezberdinetan jarritako sail edo zerbitzu bereko izenak konposatzeko hartu den tamaina-ereduari dagokiona izango da lerro-tartea.
  - Plaka ezberdinetan jarritako sail edo zerbitzu ezberdinetako izenen arteko bereiztartea, bestalde, erabiltzen den plakari dagokiona izango da.
  - Plaka berean agertzen badira, testua konposatzeko erabilitako tamaina--ereduarena baino % 40 handiagoa izango da lerro-tartea.

- Entre nombres de distintos Departamentos o Servicios, la separación entre ellos, será la que corresponda a la placa que se esté utilizando.
- Si van en la misma placa, el interlineado será el 40% más que el propio del cuerpo en que se esté componiendo.

- En los rótulos compuestos, euskera a la izquierda, castellano a la derecha se seguirán estas normas:
  - En nombres del mismo Departamento o Servicio, colocados en distinta placa el interlineado será el mismo del cuerpo en que se esté componiendo.
  - En nombres de distintos Departamentos o Servicios colocados en distintas placas, la separación entre ellos será la que corresponda a la placa que se esté utilizando.
  - Si van en una misma placa, el interlineado será el 40% más que el propio del cuerpo en que esté componiendo..

## 8.1.5 Geziak

Elementu orientatzaileak dira, toki jakin batera iristeko bidea erakusten dutenak.

Eusko Jaurlaritzaren seinaleetan erabiliko dugun geziak forma biribil eta bigunak ditu. Zuriak izango dira beti.

- **Geziak kokatzeko irizpideak**
  - Adierazi nahi den norabidearekin bat jarriko dira errotulu-ertzean.
  - Ormirudietako ezker eta eskuin-geziak norabideka multzokatuko dira, alegia, ezkerrerantz begira dauden guztiak elkarturik eta eskuinerantz begira dauden guztiak ere elkarturik, beti ere, informazio grafikoan nahasterik sortu gabe.
  - Geziaren norabideak ezartzen du informazio-moduluen antolamendua. Horiek horrela, sail bereko administrazio-atalak elkarrekin jarriko dira norabide berean daudenean, beren arteko administrazio- -zerikusia edozein dela ere. Adibide gisa, hona ondoko irudia:

## 8.1.5 Flechas

Es el elemento visual que orienta sobre la dirección que debe seguirse para llegar al lugar deseado. Es un complemento imprescindible de la tipografía.

La flecha que utilizaremos en la señalética del Gobierno Vasco es de formas redondeadas y suaves. Será siempre de color blanco.

- **Criterio de ubicación**
  - Se situará en la esquina del rótulo coincidente con la dirección a señalar.
  - En un panel con flechas orientadas hacia direcciones izquierdas y derechas, se agruparán todas las de dirección izquierda juntas y las de dirección derecha también juntas entre sí, evitando desorden en la información gráfica.
  - La ordenación de los soportes modulares de información se efectuará de acuerdo con la orientación de la flecha, agrupando para cada Departamento las Unidades Administrativas ubicadas en la misma dirección, con independencia de la relación orgánica existente entre ellas y según el orden indicado en los ejemplos siguientes:






**Geziaren eta "E"ren arteko proportzioa**
Proporción entre la flecha y la "E"



## 8.1.6 Piktogramak

Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, testuaren bidez emandako informazioaren ordez, piktogramak deritzen osagai grafikoak sartu ahal izango dira, mezuaren ulermena errazten dutela frogatuta baitago.

Gehienbat, seinale orokorretan (igogailuak, komunak, telefonoa, elbarrituak, jantokia, eta abar), segurtasunekoetan (irteera, presaka irteteko bideak eta abar) edo debekukoetan (ez erre, ezin pasa), argibideetakoetan eta suteen aurkako tresnerietan erabiliko dira.

Koloreen gida honakoa da:

## 8.1.6 Pictogramas

La información textual se puede sustituir, en aquellos casos que se considere necesario, con unos elementos de información gráfica, llamados Pictogramas, de probada comprensión por parte del observador.

Se utilizarán preferentemente en señalizaciones auxiliares (ascensores, WC, teléfono, minusválidos, comedor, etc.), de seguridad (salida, evacuación, etc.) o de prohibición (no fumar, no pasar), información y equipos de incendios.

La guía de colores será:

| | ***Forma geometrikoa***<br>*Forma geométrica* | ***Kolorezko mendela***<br>*Orla color* | ***Kolorezko hondoa***<br>*Fondo color* | ***Kolorezko ikurra***<br>*Símbolo color* |
|---|---|---|---|---|
| ***Seinale orokorra***<br>*Auxiliar* | ——<br>—— | ——<br>—— | **Pantone 534 urdina**<br>Azul Pantone 534 | **Zuria**<br>Blanco |
| ***Argibideak***<br>*Información* | ——<br>—— | ——<br>—— | **Pantone 293 urdina**<br>Azul Pantone 293 | **Zuria**<br>Blanco |
| ***Presaka irteteko bideak***<br>*Salidas de emergencia* | ——<br>—— | ——<br>—— | **Pantone 347 berdea**<br>Verde Pantone 347 | **Zuria**<br>Blanco |
| ***Debekuak***<br>*Prohibición* | **Biribila, 45ºtako zerrendak gurutzatua**<br>Circunferencia cruzada por diámetro a 45º | **Pantone 485 gorria**<br>Rojo Pantone 485 | **Zuria**<br>Blanco | **Beltza**<br>Negro |
| ***Sute-seinaleak***<br>*Señalización de incendios* | ——<br>—— | ——<br>—— | **Gorri argi-emalea**<br>Rojo Luminiscente | **Zuria**<br>Blanco |


150 mm
150 mm

## 8.1.7 Hizkuntzaren trataera

Eusko Jaurlaritzaren mezu guztien trataera elebidunak bere hartan segitu beharko du, euskarria edozein dela ere.

Jendearentzat edo barruko erabilerarako dauden instalazio eta geletako seinaleak jartzen direnean, eskuliburu honetako ataletan zehazturiko irizpideari jarraituko zaio:

**- Euskara goian edo ezkerrean**

**- Gaztelania behean edo eskuinean**

Seinaleei, horiez gainera, hizkuntzari dagokion beste osagai berezi bat gehituko diegu:

**- Euskara: 65 Helvetica Neue 3 Medium**

**- Gaztelania: 45 Helvetica Neue 3 Light**

Beste osagai berezi bat hizkien kolorea da:

**- Euskara: Pantone 460 horia**

**- Gaztelania: zuria**

Ezaugarri horiek bisitarien onerako izango dira, horrela errazago aurkituko baitute informazioa jasotzeko erabili nahi duten hizkuntza.

Hizkuntzari behar bezalako tratamendua emateko, kasuan kasuko izenei buruzko zalantzak direnean komenigarria da hizkuntza-zerbitzuetara jotzea.

## 8.1.7 Tratamiento idiomático

El tratamiento bilingüe de todos los mensajes del Gobierno Vasco se debe mantener inalterable, sea cual sea el soporte.

En la señalización de instalaciones y dependencias, tanto de servicio al público, o de funcionamiento interno, se mantendrá el criterio seguido a lo largo de los diversos capítulos de este Manual,

**- Euskera arriba o a la izquierda**

**- Castellano abajo o a la derecha**

Para la señalética, añadiremos además, otro elemento diferenciador en cuanto al idioma.

**- Euskera en 65 Helvetica Neue 3 Medium**

**- Castellano en 45 Helvetica Neue 3 Light**

Otro diferenciador es el color de las letras,

**- Euskera: Amarillo Pantone 460**

**- Castellano: Blanco**

Con estos elementos se pretende ayudar al visitante a conseguir una más rápida identificación del idioma en el que desea recibir la información, facilitándole el recorrido.

Para un correcto tratamiento idiomático, se recomienda en caso de dudas sobre las diversas denominaciones acudir a los servicios lingüísticos correspondientes.


Euskara
Castellano


Euskara
Castellano

# 8.2 Euskarriak

## 8.2.1 Ezaugarriak

Seinaleen eta eustekoen materialek eta osagaiek dagokien helburua lortzeko egokiak behar dute izan, eta gainera honako kalitate-maila hauek bete behar dituzte:

**a) Azalera**

Ikusten den azalerak zurruna, leuna eta uniformea behar du izan. Seinaleen osagaiek kolorez, itxuraz, testuraz eta bukaera-mailaz homogeneoak izan behar dute.

**b) Euskarriak eta eustekoak**

Eusteko erabiliko den sistemaren ezaugarriak: garbia, ez oso nabaria, gogorra mantenimendu-lanetarako (garbiketa, osagaien aldaketa) edo noizbehinkako basapiztikerietarako eta eraldagarritasun handikoa (mota guztietako aldaketak jasotzeko gai).

Torloju edo aingura-metodoak erabiliko dira. Zenbait kasutan (zulorik onartzen ez duten osagaietan tinkatu behar direnean) zerrenda itsaskorrak erabiliko dira. Iman erako tinkatze-moduak ez dira erabiliko, baldin eta baliozkotzat jotzen den beste metodoren batekin ez bada.

Euskarriek berek 8-26 / 99 orrialdean ezarritako tamainaren araberakoak izan beharko dute. Informazioa bi aldeetan daramaten seinaleak egin ahal izango dira.

**c) Marraskagaitzak**

Erabiliko diren material eta osagai guztiek marraskagaitzak beharko dute izan. Horietakoren batean altzairurik sartzen bada, gainazala bukatutzat eman aurretik galbanizatu egingo da.

**d) Tenperaturarekiko eta hezetasun-baldintzekiko gogorrak**

Kanpoaldeetan jartzekoak diren materialek eta errotuluen gainazalek, euskarriek eta eustekoek -20º Ctik +40º Cra bitarteko tenperaturak eta % 30etik % 65era bitarteko hezetasun erlatiboa jasateko modukoak beharko dute izan. Seinaleztapen-sistemako edonolako osagaik ez du bakteria, onddo edo intsekturik hazteko biderik emango.

**e) Uraren xurgapena**

Sistema osatzen duten materialak ez dira uretan disolbagarriak izango, eta ez dute ura xurgatuko.

# 8.2 Soportes

## 8.2.1 Características

Los materiales y componentes de los elementos de señalización y sus fijaciones deben ser adecuados a su propósito y satisfacer los siguientes niveles de calidad:

**a) Superficie**

La superficie expuesta del soporte debe ser rígida, plana y uniforme. Los elementos de señalización deben ser homogéneos en color, forma, textura, tamaño y nivel de acabado.

**b) Soportes y elementos de fijación**

El sistema de fijación empleado será pulcro, discreto, resistente a tareas de mantenimiento (limpieza, sustitución de componentes) o a eventual vandalismo y de gran reversibilidad (para poder admitir todo tipo de cambios).

Se emplearán métodos de atornillamiento o anclaje. En casos singulares (fijación a elementos no perforables) se podrán utilizar bandas adhesivas. Nunca se emplearán fijaciones magnéticas si no van complementadas con otro método de los considerados válidos.

Los soportes propiamente dichos deberán adecuarse en cuanto a modulación de tamaño y a lo establecido en la página 8-26 / 99. Deberá ser posible la creación de señales con información a dos caras.

**c) Resistencia a la corrosión**

Todos los materiales y componentes empleados deberán garantizar su resistencia a la corrosión. En caso de utilizarse acero en alguno de ellos habrá de someterse a galvanización previamente a la aplicación del acabado superficial.

**d) Resistencia a la temperatura y condiciones de humedad**

Los materiales y acabados superficiales de rótulos a ubicar en exteriores, sus soportes y fijaciones deben resistir cambios de temperatura de -20º C a +40º C y humedades relativas del 30 al 65%. Ningún componente del sistema de señalización posibilitará el crecimiento, de bacterias, hongos o insectos.

**e) Absorción de agua**

Los materiales constituyentes del sistema no deben ser solubles en agua ni absorberla.

### f) Materialak

Euskarrietan erabiliko den materialak aluminiozkoa izan beharko du eta perfil estruitukoa; eta, bestalde, euskarri akabatua labean esmaltatuko da.

Bigarren mailako osagaietan, aukeran, aluminioa erabiliko da; altzairu galbanizatu margoztua eta plastiko termoegonkorrak ere erabili ahal izango dira. Material horiek guztiek indarrean dauden arauek ezarritako kalitate-baldintzak bete beharko dituzte.

Seinaleak berriz erabiltzeko aukera emango duen sistema teknikoren batek inprimatu behar du aurkibideetako eta gainerako errotuluetako osagaietan agertzen den informazioa.

Piktogrametan, eduki-aldaketarik egiten ez zaienez, erraz iristen den lekuetan daudenez eta gehiagotan erabiltzen direnez, izaera gogorragoa eta egonkorragoa emango dieten teknikak erabiltzea gomendatzen da.

### g) Kolorea eta gainazalen akaberak

Euskarrien kolorea, edozein material dela ere, beti Pantone 534 urdina izango da. Euskarri hauek Pantone 3258 berdez egindako zerrenda bat izango dute goian eta beste bat behean. Alboetan zerrenda beltz bana jarriko da.

Seinalea osatzen duten errotulu sinple edo konposatuen goi, behe eta alboaldeen akaberako emaitza lortzeko, erdietsi nahi den helburuari ondo egokitutako euskarri edo piezen diseinua egin beharko da. Piezok behin eta berriro muntatu eta desmuntatzeko gogorrak izan beharko dute, eta euskarriari tinkatzeko sistemak berekiko basapiztikeriak galaraziko ditu.

### f) Materiales

En los soportes propiamente dichos el material empleado deberá ser de aluminio en forma de perfiles extruídos y su acabado será esmaltado al horno.

En los elementos secundarios será preferible el empleo de aluminio, pudiéndose utilizar acero galvanizado y pintado y plásticos termoestables. Todos estos materiales deberán cumplir los requerimientos de calidad establecidos en la normativa vigente.

La información de los componentes de Directorios y demás rótulos deberá estar estampada por un sistema técnico que permita su posible reutilización.

En los pictogramas, al ser unos elementos no sujetos a cambios de contenido y estar situados en lugares más accesibles y de mayor uso, es recomendable la utilización de técnicas más permanentes y resistentes.

### g) Color y acabados

El color de fondo de los soportes, sea cual sea el material utilizado, será el azul Pantone 534**.** Estos soportes irán rematados en la parte superior e inferior por dos bandas de color verde Pantone 3258. Los laterales estarán rematados por elementos de color negro.

Deberá resolverse el acabado superior/inferior/lateral de los rótulos simples o compuestos que constituyen una señal mediante un diseño adecuado del soporte o piezas especialmente concebidas para ello. Estas últimas serán resistentes a montajes/desmontajes sucesivos y su fijación al soporte impedirá vandalismos de cualquier tipo sobre las mismas.

## 8.2.2 Euskarrien aukerak

Seinaleak aipatzen direnean, mahai gainean jartzen diren errotulu txikietatik hasi eta aurkibideen hormirudi handietaraino doaz aukerak.

Errotulu-mota bakoitzaren ezaugarri zehatzak dagozkien azpiatalean adierazten dira.

Seinaleen tamainak, koloreak, hizki-motak, kokalekuak eta kanpo-itxurak funtsean eskuliburu honetan azaltzen den modukoak izan behar duten arren, bukaerako emaitza seinale-egilearen araberakoa izango da.

## 8.2.2 Gama de soportes

Entre los productos de señalización se incluyen desde pequeños rótulos de sobremesa hasta grandes directorios.

Las características concretas de cada tipo de rótulo se detallan en su apartado correspondiente.

A pesar de que el tamaño, color, tipografía, disposición y apariencia exterior de los productos de señalización ha de ser esencialmente como se ilustra en este Manual, su construcción concreta podrá variar de uno a otro fabricante.




**Seinale-egileek neurriok alda ditzakete gehienez ere % 10 ±ko aldeaz**
Estas medidas pueden ser variadas, en un ±10% dependiendo del fabricante

## 8.2.3 Tinkatzeko sistemak

Kasuan kasuko kokalekuaren arabera, honako tinkatze-sistema hauek daude:

1. Erakusmahaikoa edo lurraren gainekoa.
2. Bionboetakoa.
3. Beirazko manparetakoa.
4. Hormakoa.
5. Hormatik kanporanzkoa.
6. Sabaitik esekitakoa.
7. Sabaiari tintatukakoa.
8. Lurrean sartua.

Sistema hauek nahikoak izango dira sor daitezkeen seinale-behar guztiak betetzeko.

Seinaleak edo seinaleen zati nahiz osagairen bat errotik atera edo eraitsi behar izanez gero, horretarako baimena duten langileek egingo dute lan hori.

## 8.2.3 Sistemas de fijación

Los diferentes sistemas de fijación en función de las situaciones tipo son los siguientes:

1. Apoyado en el mostrador o en el suelo.
2. Sobre biombos.
3. Mamparas de vidrio
4. Fijación a pared.
5. En voladizo o banderola.
6. Suspensión del techo.
7. Fijación al techo.
8. Empotrado en el suelo.

Con ello deben quedar resueltas todas aquellas necesidades de señalización a que el sistema pueda enfrentarse.

En ningún caso, una señal o parte o componente de ella deberá poder ser arrancada o desmontada por personal no autorizado.

**Ate ondoko errotuluak horman jarriko dira, atea irekitzen den aldean.**

Los rótulos de puerta irán colocados en la pared siempre al lado de apertura









## 8.2.4 Seinaleen kokalekuak

Jarriko diren seinaleak ez dira tokiko arkitekturarekin nahastu behar (estilo historikoa, funtzionala).

**• Kokalekuak**

Ahalik eta biderik laburrena eta modurik errezenean adierazteko tokietan jarriko dira seinaleak.

Komenigarria da zehatz-mehatz egiaztatzea, batetik, arlo bakoitzean dauden zerbitzuak adierazita dauden, eta, bestetik, pertsonek egin ohi duten ibilbidean seinale horiek toki egokian kokatuta dauden.

**• Kanpoko seinaleak**

- Ordezkaritza ezagutarazteko errotulua.

  Gehienbat, hormari atxikita egongo dira, eta eraikineko aurrealdearen ezaugarrien arabera kokatuko dira. Hala ere, lurretik 120 cm-tik 210 cm-ra bitartean ipini beharko dira, tarte horretan ikusten dira eta ondoen.

- Erakundea eta norabidea adierazteko kanpo--errotuluak

  Ibilgailuetan doazen pertsonek ikusi beharko dutenez, eta errotuluen aurrean gelditzerik izango ez dutenez, seinalearen behealdetik lurreraino 75 cm daudela jarri beharko dira.

Esan beharrik ez dago arau hauek guztiak hertsiki bete beharko direla ahal izanez gero. Kasu berezietan (tokirik ez, zenbait oztopo, argi gutxi, eta abar), seinaleak kokatzeko irizpide nagusiari malgutasunez jarraituko zaio, kasu bakoitzari dagokion irtenbidea emateko.

## 8.2.4 Emplazamiento de la señalización

La señalización no se debe mezclar o confundir con la arquitectura del espacio en que esté ubicada (estilo histórico, o funcional).

**• Los emplazamientos**

Es necesario que los emplazamientos se hagan de forma que orienten de forma coherente con los recorridos más fáciles y cortos.

Se recomienda que se comprueben exhaustivamente los servicios que debe albergar cada área y su ubicación coherente con el recorrido de las personas.

**• Señalización exterior**

- Rótulo identificador de Delegación.

  Normalmente irán fijados a la pared. Su ubicación exacta dependerá de las características de la fachada del edificio, no obstante, se deberán colocar entre 120 y 210 cm. de altura, por ser ésta la zona óptima de visión.

- Rótulos exteriores de identificación y dirección.

  Dado que deberán poder ser vistos por personas en coches y siempre que se prevea que no se pueda aparcar delante de ellos, se colocarán con su extremo inferior a 75 cm. del suelo.

Queda sobreentendido que todas estas normas de colocación se deberán cumplir estrictamente siempre que sea factible. En casos singulares (falta de espacio, obstáculos varios, deficiente iluminación, etc.) el criterio general de ubicación se interpretará con cierta flexibilidad, para lograr así soluciones adecuadas a cada circunstancia.

**• Barruko seinaleak**

**- Piktogramak**

Gehienbat, hormari atxikita egongo dira, atea irekitzen den aldean. Euskarriaren goialdeak 210 cm-ra egon beharko du lurretik, eta hormatik hurbilen dagoen alboak ateko markotik 5 cm-ra.

Piktogramak osagai bat (su-itzalgailua adibidez), eta ez ate bat, seinalatzen duenean, seinalatuaren parean zutika jarriko da eta piktogramaren behealdea lurretik 210 cm-ra ipiniko da.

Piktograma batzuk elkarren ondoan jarri behar izanez gero, lehena tinkatutakoan, gainerakoak ezkerretik eskuinerantz eta goitik beherantz kokatuko dira (bat bera ere ez lehenengoaren gainetik edo ezkerretik) eta beren artean goitik, behetik eta alboetatik 5 cm-ko tartea utziko da.

**- Toki itxietako ezagutarazleak**

Bakarrik agertzen direnean, piktogramek dituzten arau berberak beteko dituzte.

**• Señalización interior**

**- Pictogramas**

Habitualmente se colocarán fijados a la pared, en el lado de apertura de la puerta. La parte superior del soporte estará a una altura de 210 cm. sobre el suelo y su lado más cercano, separado 5 cm. del borde del marco.

En caso de que el pictograma señalice un elemento (por ejemplo un extintor) y no una puerta, se colocará en la vertical del elemento señalizado y su parte inferior se encontrará también a 210 cm. sobre el suelo.

Caso de colocarse juntos varios pictogramas, una vez fijado el primero, los demás irán de izquierda a derecha y de arriba abajo (ninguno ni encima ni a su izquierda), guardando entre ellos una separación vertical y horizontal de 5 cm.

**- Identificación de recintos**

Cuando vayan solos se regirán por las mismas reglas que los pictogramas.

**- Eraikinen aurkibidea**

Aurkibidearen behealdetik lurrera 120 cm daudela jarri beharko da.

**- Solairuko aurkibideak**

Aurkibidearen behealdetik lurrera 120 cm daudela jarri beharko dira.

**- Administrazio-atalen aurkibideak**

a) Esekiak edo sabaiari atxikiak. Seinalearen behealdetik lurrera 210 cm-ko tarteak egon beharko du.

b) Hormari atxikiak. Seinalearen behealdetik lurrera 150 cm-ko tarteak egon beharko du.

**- Bigarren mailako errotuluak eta seinale zehatzak**

a) Hormatik kanporanzkoa. Ateak irekitzen diren aldean jarriko dira. Behealdea 210 cm-ra ipiniko da lurretik, eta ateko markoaren ertzetik 15 cm-ra.

b) Hormari atxikiak. Hormatik kanporanzkoaren azpian kokatuko da. Behealdea 150 cm-ra ipiniko da lurretik, eta markoaren ertzetik 15 cm-ra.

**- Larrialdietarako irteeren norabidea ezagutarazteko errotuluak**

Erakundea eta norabidea adierazteko errotulu ertain eta handietarako arau berberak izango dira hauetarako ere.

**- Jendearentzako argibide-errotulu bereziak**

a) Errotulu tinko txikiak: bakarrik daudenean, hau da piktogramarik gabe, atean bertan kokatuko dira zentraturik, errotuluko behealdetik lurrera 160 cm daudela.

b) Errotulu tinko handiak: sabaitik edo antzekoetatik esekita egongo dira, eta beraz, errotuluko behealdetik lurrera 210 cm-ko tarteak egon beharko du.

c) Iragarki-oholak: hormari atxikita egongo dira. Oholaren behealdetik lurrera 120 cm egon beharko du.

d) Jarduera-oholak: lurrean zutik jarrita egongo dira.

**- Directorio de edificios**

Se colocará con su parte inferior a 120 cm. del suelo.

**- Directorios de planta**

Se colocará con su parte inferior a 120 cm. del suelo.

**- Subdirectorios**

a) Colgados o fijados al techo: La parte inferior del conjunto estará a 210 cm. del suelo.

b) Fijados a la pared: La parte inferior del conjunto estará a 150 cm. del suelo.

**- Rótulos secundarios y señalización puntual**

a) En banderola: Se colocarán en el lado de apertura de las puertas, su parte inferior quedará a 210 cm. del suelo y estarán separados 15 cm. del borde del marco de la puerta.

b) Fijados a pared: Se colocarán debajo de la banderola, su parte inferior quedará a 150 cm. del suelo y estarán separados 15 cm. del borde del marco.

**- Rótulos de dirección e identificación de salidas de emergencia**

Se seguirán las mismas reglas que para los rótulos medianos y grandes de identificación y dirección.

**- Rótulos especiales de información al público**

a) Rótulos fijos pequeños: Cuando vayan solos, es decir, sin acompañar a pictogramas, se colocarán centrados en las hojas de las puertas y con su parte inferior a una distancia de 160 cm. del suelo.

b) Rótulos fijos grandes: Irán colgados del techo o similar y, por tanto, su parte inferior estará a 210 cm. del suelo.

c) Tablones de anuncios: Irán fijados a la pared. Su parte inferior quedará a 120 cm. del suelo.

d) Carteleras de actividades: Irán apoyados directamente en el suelo.

- Errotuluak ohiko kasuetan kokatzeko adibideak

- Ejemplos de situación de rótulos en los casos más comunes.









(*)





(*) - **Arlo batzuetarako lan-guneak direnean, hormatik kanporanzkoa erabiliko da, eta lan-gela nahiz bilera-geletarako sarreretan, aldiz, horman atxikirik jarriko dira**.
- Se utilizará la banderola, cuando se trate de áreas de trabajo común, siendo de fijación a la pared en acceso a despachos y salas de reuniones.

# 8.3 Administrazio-lanetarako eraikinak

## 8.3.1 Urbanizazioa

Eraikinen ondoko zirkulazio, norabide, aparkaleku, zedarriztapen, erreserba, eta horrelako aldeen ardura Eusko Jaurlaritzari badagokio, alde horien seinaleek argiak eta ulerterrazak beharko dute izan, atmosfera--baldintza eta argiztapena edozein dela ere.

Trafiko-seinaleak indarrean daudenak izango dira.

Urbanizazio barruan jarduteko seinaleek honako ikur hauek erabili ahal izango dituzte: "erdikoa", eta "albokoa" markak edo armarri bakartua, koloreetan nahiz kolore bakarrean. Egokitzat jotzen denean, erliebean edo baxuerliebean egin ahal izango dira.

Seinalean adierazi nahi den eraikinaren norabidea eta kokalekua biltzen dituzten errotuluetan baino ez da erabiliko marka. Errotulu horiek eraikinaren izena, hizki larriz idatzia, eraman beharko dute.

Idatziko diren testuek hizkuntza-trataerak ezarritakoa bete beharko dute, alegia, euskara denean Helvetica 65 medium, eta gaztelania denean, berriz, Helvetica 45 light.

E = 50 mm eta E = 100 mm-ko hizkiak erabiliko dira, izan ere, egokienak dira seinaleak dituen helburuak eta ikusgarritasun-baldintzak betetzeko.

Errotulu hauek argi bideratuak izan ditzakete.

Testuaren bidez ematen den informazioa hobetzeko, bidezkoa da, errotuluaren barruan, zirkulazio-seinaleak, norabide-geziak edo piktogramak agertzea.

# 8.3 Edificios administrativos

## 8.3.1 Urbanización

En aquellos edificios en que el Gobierno Vasco tenga la responsabilidad de las zonas propias de circulación, dirección, aparcamientos, limitaciones, reservas, etc., éstas deberán estar señalizadas de forma clara y fácil de interpretar en todo tipo de condiciones atmosféricas o de iluminación.

Las señales de tráfico serán las contempladas en la normativa vigente.

Las señales propias de funcionamiento dentro de la urbanización deberán utilizar cualquiera de las Marcas "Centrada", " Lateral" o Escudo aislado, en color o monocolor. Cuando se considere oportuno, también podrá ir en relieve o bajorrelieve.

La Marca sólo se utilizará para aquellos rótulos que indiquen la dirección y posición del edificio señalizado. Estos rótulos, también deberán llevar el nombre del edificio escrito en mayúsculas.

La información textual deberá acogerse a lo establecido para el tratamiento idiomático: euskera en Helvética 65 medium, castellano en Helvética 45 light.

Se usarán los tamaños de letra E=50 mm y E=100 mm, por ser considerados los idóneos para cumplir sus cometidos en el entorno y condiciones de visión.

Estos rótulos podrán estar iluminados por focos dirigidos.

Para mejorar la información textual se contempla la posibilidad de incluir señales de circulación, flechas de dirección o pictogramas, formando parte del rótulo.


LAKUA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAKUA


P


P


P
Bisitariak
Visitas


P


Irteera
Salida


Zama-lanak
Descarga

## 8.3.2 Administrazio-lanetarako eraikinetako kanpo-seinaleak

- **Jaurlaritzaren eraikinak** (1. eta 2. adibideak)
  Eusko Jaurlaritzaren, ez beste inoren, administrazio-gelak dituzten eraikinetako seinaleetan, komenigarria da gai metalikozko erliebean egindako markako bertsioren bat erabiltzea. Gai horrek, gainera, kapitulu honetan zehaztutako eskakizunak bete beharko ditu: tinkatzeko modua, marraskagaitza, tenperaturarekiko eta hezetasunarekiko gogortasuna, uraren xurgapena, materialak eta akabera.

  Beste aukera bat ere badago: monumentu--izaera duten eraikinetako aurrealdeetan, hormatik ateratzen diren bereizgailuak erabiliz, beira gardenezko plakak jar daitezke eta horrela alde horiek ez dute eraginik jasango.

- **Eraikin hainbanatuak** (3. adibidea)
  Eusko Jaurlaritzak eraikinaren zati bat baino erabiltzen ez duenean (ordezkaritzak eta abar), material gogorreko euskarri errektangeluarrak erabiliko dira. Euskarri horietan, Eusko Jaurlaritzaren markarekin eta sailaren izenarekin batera, ordezkaritzaren edo dena delako zerbitzuaren izena agertuko da, zentraturik eta nabarmendurik, beti ere, euskarazko testua goian eta gaztelaniazkoa behean.

  Kokalekuari dagokionez, ahal dela, kanpoko aurrealdean edo eraikineko sarbidetik hurbil jarri beharko dira, baldin eta bertako auzokideen elkarteak hori galarazten duen araurik ez badu. Horrelakoetan, irtenbiderik egokiena hautatuko da.

  Eraikineko ezaugarrien araberako kokaleku zehatza izango badute ere, seinaleek lurretik 120 cm-tik 210 cm-ra bitartean egon behar dute; izan ere tarte horretan ikusiko dira ondoen.

  Esan beharrik ez dago arau hauek guztiak hertsiki bete beharko direla ahal izanez gero. Kasu berezietan (tokirik ez, zenbait oztopo, argi gutxi, eta abar), seinaleak kokatzeko irizpide nagusiari malgutasunez jarraituko zaio, kasu bakoitzari dagokion irtenbidea emateko.

## 8.3.2 Señalización exterior de edificios administrativos

- **Edificios exclusivos** (Ejemplos 1 y 2)
  En la señalización exterior de edificios destinados exclusivamente a albergar dependencias administrativas del Gobierno Vasco, recomendamos el uso de la versión elegida de la Marca construida en relieve de un material metálico. Este material deberá responder a las exigencias descritas en este capítulo sobre fijación, resistencia a la corrosión, resistencia a la temperatura, condiciones de humedad, absorción de agua, materiales y acabado.

  Otra posibilidad es utilizar unas placas de cristal transparente, montado sobre separadores contra la pared, no incidiendo de esta forma sobre fachadas de carácter monumental.

- **Edificios compartidos** (Ejemplo 3)
  En locales en los que el Gobierno Vasco utiliza una parte del edificio (Delegaciones, etc.) se usarán soportes rectangulares de material resistente en los que, además de la Marca del Gobierno Vasco y el nombre del Departamento, irá en lugar centrado y destacado el nombre de la Delegación o Unidad administrativa que se trate, escrito en euskera arriba y castellano abajo.

  En referencia a su ubicación, se colocará preferentemente en la fachada exterior o en lugar próximo al acceso al mismo, salvo que existan normas de comunidad que lo impidan, en cuyo caso se adoptará la solución más oportuna.

